

8 Miatze-jarduera: Nork hasi zuen Gerra Hotza - AEBk ala SESBk?

3. Hona hemen bi testu berri, kasu honetan Marshall Planari buruzkoak.

- a) Binaka jarraitu, baina oraingoan, testu bana aukeratu ordeztu, aztertu eta azpimarratu bi testuak elkarrekin. Gero, erantzun galderei.
- b) Adostu eta idatzi zuen azken hipotesia galdera nagusiari erantzuteko:

Nor izan zen Gerra Hotzaren lehen erantzulea, AEB ala SESB?

E

Marshall Plana

Komunismoaren haziak zabaltzeko egin ziren eta pobrezia lur gorrietan hazi. Marshall Plana ez dago herrialde edo doktrina baten kontra pentsatuta, baizik eta gosearen, pobrezia, etsipenaren eta kaosaren kontra. Haren helburua ekonomia berriro ere indartzea da, erakunde askeak bideratuko dituzten baldintza politiko eta sozialak posible egiteko. Herrialdeak berronertzeko blokeoa ezartzen duen gobernu orok ezin dezake gugandik laguntzarik espero. Are gehiago, probetxu politiko ateratzen jarraitzeko giza miseria luzatu nahi duten gobernuak edota alderdi politikoek aurre egingo dute topo Estatu Batuekin.

George Marshall, Europako egoera ekonomikoa suspertzeko aholkularia Bigarren Mundu

Gerraren ostean, 17.000 milioi dolar Europar inbertitzeko iradokizuna egitean, 1947ko ekaina

Gure ustez, Marshall Planaren bidez, estatubatuarrek laguntzen zituzten herrialdeen kontrola eskuratu nahi zuten. Estatubatuarren eraso-ekintza gisa ikusi genuen. Horrexegatik Sobietar Batasunak ez zuen inoiz plana onartu.

Dimitri Sukanov, 1947an sobietar administrazioan ardurak izan zituen politikariak 1988an eginiko adierazpenak

1. Marshalllek argudiatzen zuenaren arabera, zergatik zen «logikoa» Europako ekonomiari laguntzea?



«Gauza bera da, baina arazo mekanikorik gabe»
(Herbert Block, The Washington Post, 1949ko urtarrilak 26).

2. Zer portaerek egin behar zuten topo Estatu Batuekin aurrez aurre? Zuen ustez, nori buruz ari zen Marshall?

3. Sobietar Batasunak uko egin zion Marshall Planean parte hartzeari. Nola arrazoitzen zuen hori Sukanovek.